

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2013ko martxoaren 21a. IX. urtea. 2.565. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)



ITERRADILLOS

## Unipapel-eko eta Huyck Wangner-eko langileak Donostiara begira daude

Gaur eta astelehenean batzarrak egingo dituzte Gipuzkoako hiriburuan; bi enpresetako langileek mobilizazioekin jarraitzen dute 03



Huyck Wangner-eko hainbat langile, lantegi kanpoko kanpalekuan. A.I.

**Ur Algero** Aresoko alkatea eta Udalbiltzako gobernukidea

## «Eragile garrantzitsua eta eraginkorra da Udalbiltza herri moduan antolatzeke»

Udalbiltza, Euskal Herriko udalen eta udal hautetsien biltzarra, abian da berriro; Ur Algerok Nafarroa Garaia ordezkatzan du erakundean, eta bertan ahalik eta hautetsi gehien egoteko lan egingo dutela esan du 07

## Oinak astintzeko aukera emango du etziko Dantzari Txiki eta Erromeria egunak

Irati Artutxa Tolosako Udaberri dantza taldeko kideak dioenez, «aniztasuna izaten da Zerkausian egiten den Erromerian» 02

## 44 urteko espetxe zigorra ezarri diote Manex Castro billabonatarrari

Inaxio Uriaren hilketan ETArri laguntzea eta atxiloketa ilegala egotzi dizkio, besteak beste, Espainiako Auzitegi Nazionalak 06

## Euskal Pizkundea zikloari amaiera emango diote etzi, Tolosan

'Aitzolen' fusilamenduaren 75. urteurrenaren harira, Euskal Pizkundeko pertsonaia garrantzitsuenen lana ekarri dute gogora 04-5



Jose Ariztimuño Aitzol. HITZA

# Euskal dantzaren egun handia izango da etzi, Tolosan

Dantzari Txiki eta Erromeria eguna antolatuko du Udaberri, eta 300 neska-mutil elkartuko dira

**Itzea Urkizu** Tolosa

Urteroko hitzordua bilakatu da jada, Udaberri dantza taldearen Dantzari Txiki eta Erromeria eguna. Aste Santu aurreko larunbata, horrela, euskal dantzari eskainitako eguna izango da aurten ere.

Euskal Herriko dantzez goza-

tzeko hamaika modu izango da, goizean goiz elkartuko baitira, Plaza Zaharrea, 300 haur eta gaztetxo; 150 izango dira kanpotik etorritakoak, eta gainontzekoak dantzari tolosarrak izango dira. Beren dantza pauso, musika eta jantziak kalejiran zabalduko dituzte, 11:30etik aurrera, Errenteria, Lesaka, Atarrabia, Galdakao, Hendaia, Gasteiz eta Tolosako dantzari txikiek.

Arratsaldean ere izango da, ordea, zazpigarren dantzari txikiaren barruan, Plaza Berrian eskainitako duten emanaldiaz gozatzeko aukerarik, euskal herrialde guztietako kulturaren zati bat tolosa-



Zazpigarren dantzari txikiaren ere, Euskal Herriko hainbat txokotako dantza izango dira ikusgai. **ENERITZ MAIZ**

ra ekarri. Eguraldiak laguntzen ez badu, Zerkausian ariko dira.

## Oinak astintzeko plaza

Dantzan ez dakitenek, ikasten ari direnek edo dantzari direnek, be-

rriz, iluntzetik gauerdira astinduan ahal izango dituzte oinak, Erromerian.

19:45ean triki poteoarekin hasi, eta afalondoren Zesuma taldea ariko da Zerkausiko festa giro-

tzen; tartean, gainera, Larrain dantza ere izango da.

Afari txartelak Raku, Orbela, Xirimiri eta Ikatz tabernetan eskuragarri daude oraindik, 15 euroren truke.

**Irati Artutxa** • Udaberri dantza taldeko ikastaroetako arduraduna

## «Taldekoro giroa oso ona da, eta horrek gauza berriak antolatzen gogoia pizten du»

### I. Urkizu

Badu eskarmentua, Irati Artutxak (Tolosa, 1989), dantza irakaste horretan. Udaberri dantza taldeko ikastaroen arduradunetako bat izaki, lanpetuta dabil azken asteotan, Dantzari Txiki eta Erromeria egunerako guztia prestatzen.

**Zazpigarren dantzari txikia izango da aurtengoa. Aldatuz joan da antolakuntza, ezta?**

Hasieran, Udaberriko ikasle bakoitzak, kanpoko dantza taldeetako bi ume eramaten zituen etxera, bazkaltzera. Gero, dantzari guztiak inguruko elkarteetan banatzen hasi ginen, gurasoen laguntzaz. Aurten, ordea, elkarteetako zuzendaritzetara jo dugu,

eta gure egitasmoa aurkeztu diegu. Hainbat elkartek baiezkioa eman digute, eta elkarte osoa hartu dute dantzari txikientzat.

**Transmisioa sustatuko du larunbaterako jaiak, beraz.**

Bai. Batetik, gaztetxoak astero etortzen dira, irailtik maiatzera bitarte, ikastaroetara; taldearen etorkizuna dira. Olentzero eta Erregeen etorrerak, inauterietako dantzari txikia, Dantzari Txiki eguna eta ikasturte amaieran Leidorren egiten dugun ikuskizuna izaten dituzte, eta kanpoko dantzari txikieta ere joaten dira. Ikasitakoak erakutsi, eta besteena ezagutzen dute.

**Mutil falta izaten da dantza talde gehientsuenen arazo.**

Bai. Hala ere, aurten, haurren



**ITZEA URKIZU**

ikastaroetan, mutil talde bat osatu dugu. Besteak beste, beren motibazioagatik hartu dugu erabakia, askotan mutilak bakarrik gertatzen baitira taldeetan. Aldiz, mutil talde bat osatu dela ikusten badute, askori gogoia pizten zaie, eta jada dantza utzia zuten mutil batzuk berriz hasi dira aurten.

**Dantza tradizionala soilik jorritzen duten talde gutxi izango da, jada. Zuen ikastaroek, hala ere, erantzuna ona dute oraindik. Zein da gako?**

Hori nik ez dakit. Nire ustez, urte osoan zehar kalean egiten ditugun emanaldi, kalejira eta jarduerak guztiak badute eraginik, jendeak talde aktiboa garelako ikusten duelako; haurrek ere ikusten dute, eta gustatzen bazaie, izena eman nahi dute. Era berean, guraso asko tolosarrak izanda, eta beren seme-alaben lagunak Udaberri baldin badabilta, Tolosako Udaberri dantza taldean ematen dute izena. Gero, haur horiek helduago egiten direnean, eurek aukeratzen dute zein dantza mota egin nahi duten.

**Helduen ikastaroetan, berriz, lehenengo plaza dantzei tarte zabala eman diezue.**

Bai, nik ikasleak oso animatuta ikusten ditut, eta aurreko urtee-

tan baino jende gehiagok eman du izena.

**Musikari askok esan ohi dute, hala ere, jende gutxi aritzen dela dantzan, plazetan.**

Egia da. Guk egun zehatz batean antolatzen dugu jaia, eta nolabait dantzarako gogoia duen jende asko elkartzen da. Plazan, ordea, trago pare bat hartu ezean, jende gutxi aritzen gara dantzan.

**Hala ere, Erromeria ekitaldi zabala da, eta askotariko herritarrek parte hartzen dute.**

16 urte ingurutik gorako jendea etortzen da, besteak beste. Azken urteotan, gainera, helduen ikastaroetako kideak ere animatzen ditugu parte hartzera, eta aniztasuna izaten da Zerkausian.

**Dantzarekiko afizioaz harago, dena den, talde batean zuen gisara lan egiteko, beste loturirik izango da.**

Gaur egun Udaberriko gehienok, ikastaroen bidetik etorritakoak gara, eta nolabait, dantzaren transmisio hori jarraitu dugu. Beraz, esan daiteke gure bizitzako zati garrantzitsua dela Udaberri. Badira, ordea, duela gutxi hasitakoak ere, eta horiek ere erabat aritzen dira lanean Udaberri, gus-tura. Nire ustez, taldekideon artean dugun harreman onak asko lotzen gaitu dantza taldera; dantza egitea gustuko dugu, noski, baina taldekoro giroa oso ona da, eta horrek lanerako eta gauza berriak antolatzen gogoia pizten du.

**Giro hori kutsatu nahiko duzue larunbatean, beraz.**

Bai, txartelen salmenta ondo doa oraingoan, eta ea hala jarraitzen duen. Nik jendea animatu nahi dut Erromerian parte hartzera.

• [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)

### ↓ Iragarki laburrak

#### LAN ESKAERAK

**Etxeko lanetarako.** Etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. Interesa duen edonork, dei dezala 943 69 68 82 edo 606 5 219 92 telefonoetara.

#### LAN ESKAINTZAK

**Ileapaindegia.** Tolosako ileapaindegi batean lan egiteko, esperientzia handiko bi pertsona behar dira; bat lanaldi osoan lan egiteko, eta bestea lanaldi erdirako. Interesatuak, deitu 625 70 50 59 telefono zenbakira.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Unipapel eta Huyck Wangner lantegietako langileak mobilizazioetan daude. A. IMAZ

# Unipapel eta 'Perot' lantegietako langileak etorkizuna argitu nahian

Huyck Wangner-eko langile ordezkariek gaur bilduko dira multinazionalako zuzendaritzarekin, Donostian

**Asier Imaiz**

Iragan hurbil eta iluna argitu nahian dabilta Unipapel-eko eta Huyck Wangner-eko langileak, etorkizun argiago baten alde borrokan. Egutegia eskuan, bi hitzordu garrantzitsu azpimarratzen dituzte langileek: hilaren 21a eta 25a.

Adunako Unipapel lantegian langile bat kaleratu zuten duela bi aste; Zizurkilgo Perot-en, enpresa ixteko mehatxua dute gainean. Bata zein besteko langileek egoera honi mobilizazioekin erantzun diote, eta ondorengo egunetan behinik behin, horrela jarraituko dute.

Huyck Wangner, Perot, lantegietako langileak hitzordua gaur bertan dute multinazionalako ordezkariekin, 16:00etan, Donostian. Bertan zer aurkituko duten ez da-

kite langileek: «Esan digutenez, enplegu erregulazio espediente berri bat aurkeztu nahi du enpresak, baina ez digute bestelako zehaztasunik eman. Duela bi hilabete gertatu zen bezala, antza, gaur azalduko digute enpresak aurrera eraman nahi duen plan-teamendua».

**«Jarrera maltzurra»**

ELA sindikatutik, Perot-eko langileen ordezkariek moduan, enpresaren «jarrera maltzurra» salatuko dute, beste behin ere. Alde bate-tik, informazioa enpresatik jaso beharrean kanpotik jasotzen ari direla esan dute: «Martxoaren 6ean, kaleratze gutunak iristear zirenean, multinazionalak EEEa Eusko Jaurlaritzako Lan Ordezkaritzatik erretiratu egin zuen. Alta, erabaki hori ez zioten langileei ezta hauen ordezkariei azal-

du. Informazioa hirugarren pertsonetatik iritsi zitzaigun, eta honen egiaztapena arratsaldera arte ez genuen izan, enpresaren abokatuari behin eta berriz deitu eta gero».

Enplegu erregulazio espediente-a kenduko zutela jakin zutene-

an, EEE berri baten albisteak iritsi zitzaizkien, oraingo honetan, ELA-tik esan dutenez, komunikabide-etatik: «Arratsalde horretan bertan, enpresak komunikabideei zabalduko prentsa ohar baten bidez jakin genuen multinazionalak beste enplegu erregulazio espediente bat aurkezteko asmoa zuela. Hau da, beste behin ere, beste iturri batzuetatik jakin behar izan genuen multinazionalak Perot-eko langileekin egin nahi duena».

Zeharkako informazioa «jarre-ra maltzuraren» alde bat da ELA sindikatuarentzat, txanponaren beste aurpegia, «enpresak esan dituen gezurrak» izango liriteke: «Ez da egia multinazionalak *jarre-ra guztiz malguta* mantendu duenik, ezta ere *momentu oro ez zutenik inolako irtenbiderik ukatu*. Izan ere, bileren aktetan islatzen den moduan, behin baino gehiagotan ukatu dute Euskal Herriaren proiektu industrialarekin jarraitzeko aukerak aztertzea. Irtenbide horiek aztertu baino lehen ukatuak izan ziren».

Guzti honen aurrean, lehenik eta behin, gaurko bileran zer gertatzen den jakin nahi dute langileek. Ondoren, greba mugagabearekin jarraituko dutela diote, eta erabaki hori EEE berri batek ez duela atzera botako esan dute: «Borrokan tinko jarraituko dugure etorkizuna eta eskubideak defendatzen. Greba mugagabean jarraituko dugure, eta honekin batera, eta gatazka konpondu arte, mobilizazio eta ekintza ugari egingen jarraituko dugure».

**Unipapel-en, lanuzteak**

Adunako Unipapel lantegian duela bi aste langile bat kaleratu zuten. Enpresa batzordetik azaldu dutenez, «13:40an deitu zuten gora, eta bertan finikitoa eman eta kaleratua izan zen». Astelehenean, hilaren 25ean, zuzendaritza eta «47-48 urteko» langile kalera-tuaren artean kontziliazio bilera egingo dute Donostian. Unipapel-eko langileak ere bertan egongo dira, hori bai, elkarretaratzeko egiteko asmoz. Alde batetik, euren lankideari elkartasuna azaldu

nahi diote, eta bestetik, berriro lantegira itzul dadin eskatuko dute. Helburu honekin, iragan ostiralera arte, lanuzteak egiten ari-tira dira.

Kaleratuak 10 urte baino gehi-ago zeramatzen lantegian, eta azken «zazpi edo zortzitan» langile finkoa zen; familia, seme-ala-bak... Unipapel-eko langileen esanetan, albisteak «izugarriko amorrua» sortu zuen enpresan: «Beraien asmoa beldurra sartzea baldin bazen, aurkakoa lortu zuten. Kaleratzearen berri izan genuenean urgentziazko batzara deitu genuen, egunean bertan. Boto txuri bat egon zen, eta beste guztiek mobilizazioen alde egin genuen». Sei egunetan bi orduko lanuzteak egin ditu errelebo ba-koitzak, eta astelehenean, zortzi orduko lanuztea egingo dute, jar-raian.

Erabakia ulertzea ez da erraza Unipapel-eko langileentzat, kaleratze bakarrak zenbakietan ez duelako horrenbesteko eraginik, euren ustez. Horregatik, arrazoi-za zein zen galdetu zioten zuzendaritza-ri, eta jasotako erantzunak urak harrotu zituen: «Aurten kaleratze gehiago ez dela egongo esan ziguten, baina kaleratze hau erabakietan lehena zela. Ondoren, zuzenean soldata jaistera etorriko zirela. SAM lantegian aplikatu duten gidoi berdina segitzen ari dira: Kaleratuak, soldata murrizketak, enplegu erregulazio espedienteak...».

Etorkizunaren aurrean zalan-tza izateaz gain, bada haserretu dituen beste datu bat, eta hau era-bat lotsagarria da enpresa batzordetik azaldu dutenez: «Internet-en sartzen bazara, enpresak 14 milioi euroko irabaziak izan dituela ikusten duzu, eta gero, lasai asko langile bat kaleratzen dute lotsa gutxiarekin. Hau nahikoa ez, eta gero gure bila etorriko direla esaten digute gainera».

Asteleheneko lanuztearekin eta elkarretaratzearrekin mobilizazioen lehen faseari amaiera emango diote Unipapel-eko langileek. Ondoren, berriro elkartu eta jarraitu beharreko ildoak aztertuko dute guztien artean.

## Eusko Jaurlaritzako datuen arabera, Tolosaldean 3.328 langabetu daude

Azken bost urteetan langabezia %91,9 igo da eskualdean; Gipuzkoan gehien igo den bosgarren eskualdea da

**A. Imaiz**

Tolosaldean 20.596 lagun daude lan egiteko baldintzetan, hau da, langile horiek osatzen dute biztanleria aktiboaren zerrrenda.

Hauetatik 3.328 lana aurkitu ezinik daude, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta gizarte saileko datuen arabera.

Ehunekotan, eskualdean langabezia %16,16 dela esan daiteke, beti ere Eusko Jaurlaritzako datuen arabera.

Gipuzkoan, batz besteko langabezia %15,5 da, eta Tolosaldea hamaikatik seigarren postuan dago, langabezia eskualdeka aztertzen bada.

Azken urteetako bilakaerari

dagokionez, datuak okerragoak dira, izan ere, 2008tik 2013ko otsai-lera bitarte, Tolosaldean langabeziaren bilakaera %91,9 da. Datu hauen arabera, azken bost urteetan Gipuzkoan langabezia gehien igo den bosgarren eskualdea da Tolosaldea.

Taula honetan ere, batz beste-koaren gainetik gelditzen da gure eskualdea. Gipuzkoan, 2008tik hona, langabezia %80,8 igo da, Tolosaldean baino 11 puntu gutxiago.

'Aitzolen' fusilamenduren 75. urteurrenaren harira, Euskal Pizkundean zikloa hasi zuten 2013ko urrian; amaiera emateko ekitaldi bereziaz egingo dute larunbatean, Tolosan, Aranburu Jauregiaren inguruko guneari Euskal Pizkunda izena jarritz

# Abertzaletasuna eta euskara piztu zirenekoa

**Josemi Salazar**

**J**ose Artzimuno Olaso, *Aitzolen* fusilamenduren 75. urteurrena bete zen 2013ko urriaren 17an. Hala, bere belaunaldia gogora ekarri asmoz eta omenaldi gisa, 2011. urtea Euskal Pizkundean urtea izendatu izan zen. Bi urte berandago, orduan hasitako zikloari amari eman nahi diote, eta horretarako larunbatean, *Euskal Pizkunda* izena jarriko diote Oriá Ibaia, Aranburu Jauregia, Andre Mariak eta Errotak magatutako guneari. Ekitaldia 11:30ean hasiko da Tolosako udalteatxoan, eta bestek beste, bai Iriarte Tolosako alkatea, Bakarko Tejeria Eusko Legebiltzarreko lehendakaria, Ramon Labaien politikari ohi eta euskaltzalea eta Aitzolen ahaidak izango dira. Aranzadi Zientzia Elkartek ere parte hartuko du. Hirugarren Gerran Karlistak (1876) eta 36ko Gerrak mugatzen dituzten Euskal Pizkunda, Kultur garaio garaioa, batez ere literaturaren Euskarak eta abertzaletasunak goraekala nabarmena eragotzitu zuten hamarkada horietan. Hego Euskal Herrian kokatu behar dituzte ere, Tolosan garrantzi berezia izan zuten, idazle ugari bertakoak baitziren. Lizardi eta Orixe bestek beste. Gizarte eta politikari mailan Aitzol, Lopez Mendizabal, Zaurritz eta Labaien nabarmendu behar dira. 1913ko Euskal Jaia Tolosan izan zirela ere da ahaztu behar.

Erakunde lehendakari eta alkate izan zen Labaien alkate. Lizardi Gipuzko Buru Batzarreko idazkari, Iruazusta GBBko buru eta Madriñen diputatu, Lopez Mendizabal EBDBko lehendakari eta zinegotzi. Elkarren artean lagunak ziren eta euskara eta kulturaren inguruko ekitaldi askotan parte hartu zuten, Euskal Herri osoko beste euskaltzale batzuekin batera. Aitzolaren euskal arazo aukeratu izan ziren, adibidez Labaien Londresen eta Lopez Mendizabal Lusitaniako. Gehienek erbeste eragotzizuten 36ko gerra iritsi zenean. Orain arte aipatutakoak, Euskal Pizkundeko pertsonaile garrantzitsuenak izan ziren, baina ez ziren bakarrak izan. Idazleen artean, Emeterio Arrese olerkaria, Bakarko Mokoroa antzerkigile eta olerkaria, bere seme Justo Mari Mokoroa apaiza, Juan Antonio Izanusta kazetaria, Aldahako Inazio Larranaga gotzain euskaltzaina, Ramos Azkarate olerkaria, Jose Elizondo eta Andres Amonaritz antzerkigileak, Manuel Urrutia, Jose Manuel Lertxundi eta Eugenio Urrez aipatu behar dira. Doroteo Zaurritz eta Pepe Eizaguirre eragileak, Jesus Elsoegi argazkilaria eta Aranzadi Zientzia Elkarteko eragileak, Zaurritz eta Orixe bestek beste. Gizarte eta politikari mailan Aitzol, Lopez Mendizabal, Zaurritz eta Labaien nabarmendu behar dira. 1913ko Euskal Jaia Tolosan izan zirela ere da ahaztu behar.

Erakunde lehendakari eta alkate izan zen Labaien alkate. Lizardi Gipuzko Buru Batzarreko idazkari, Iruazusta GBBko buru eta Madriñen diputatu, Lopez Mendizabal EBDBko lehendakari eta zinegotzi. Elkarren artean lagunak ziren eta euskara eta kulturaren inguruko ekitaldi askotan parte hartu zuten, Euskal Herri osoko beste euskaltzale batzuekin batera. Aitzolaren euskal arazo aukeratu izan ziren, adibidez Labaien Londresen eta Lopez Mendizabal Lusitaniako. Gehienek erbeste eragotzizuten 36ko gerra iritsi zenean. Orain arte aipatutakoak, Euskal Pizkundeko pertsonaile garrantzitsuenak izan ziren, baina ez ziren bakarrak izan. Idazleen artean, Emeterio Arrese olerkaria, Bakarko Mokoroa antzerkigile eta olerkaria, bere seme Justo Mari Mokoroa apaiza, Juan Antonio Izanusta kazetaria, Aldahako Inazio Larranaga gotzain euskaltzaina, Ramos Azkarate olerkaria, Jose Elizondo eta Andres Amonaritz antzerkigileak, Manuel Urrutia, Jose Manuel Lertxundi eta Eugenio Urrez aipatu behar dira. Doroteo Zaurritz eta Pepe Eizaguirre eragileak, Jesus Elsoegi argazkilaria eta Aranzadi Zientzia Elkarteko eragileak, Zaurritz eta Orixe bestek beste. Gizarte eta politikari mailan Aitzol, Lopez Mendizabal, Zaurritz eta Labaien nabarmendu behar dira. 1913ko Euskal Jaia Tolosan izan zirela ere da ahaztu behar.

ak euskal erakundeak sortzen, bertso lehiaketak antolatzen, ELAri sindeklagintzan, mitinak ematen, *Yolán* aldizkaria eta El Día egunkaria - Pio Montoya apaizak diru gehiena jarri zuen sortzen - apaiz izan arren, Euskal Pizkundeko idazle taldeari Aitzolaren belaunaldia deitu izan zioa, berak antolatzen baitzuten Olerki Egunkak, Gerran, atxilotu eta fusilatuegin zuten frankistek.



**IÑAKI BEGIRISTAIN**  
(1906-1996-Tolosako 1933)

Unetan etorri zen Tolosara bizitza eta Puvet tele metalikoa fabrikari artzu zen lanaren geroztik. Idazle moduan euskal poetarik garrantzitsuenetakoa izan zen *Eloze-Segrietan* eta *Umezur* olerkiak liburuak - *Aitzolek* argitaratutak izan ziren bera hil ondoren - eta antzerkia eta kazetaria ere landu zituen. Euskarazko egunkaria zuten amets. Euskaltzaleak erakundearen sustatzailea izan zen.



**INAZO LARRANAGA**  
(1885-1969-Aragoa 1969)

Artxialista, poeta, itzulitzaile eta idazle-bonak nabarmendu zen. Apaiz egin zen Jesusen Kompanian eta irakasle artzu zen, baina konpainiak agintariek uztera gonbidatu zuten, segur aski bere euskaltzaleatasunagatik. Ondoren, Euskaltzaindian hasi zen lanean. *Euskoñoloko* poema liburua idatzi zen Euskaltzaindikak antzerkiak idazteko. *Aitzolek* zeharkari - enkaragatua, eta bere obrarik ospetsuena izan

ak euskal erakundeak sortzen, bertso lehiaketak antolatzen, ELAri sindeklagintzan, mitinak ematen, *Yolán* aldizkaria eta El Día egunkaria - Pio Montoya apaizak diru gehiena jarri zuen sortzen - apaiz izan arren, Euskal Pizkundeko idazle taldeari Aitzolaren belaunaldia deitu izan zioa, berak antolatzen baitzuten Olerki Egunkak, Gerran, atxilotu eta fusilatuegin zuten frankistek.



**IÑAKI LOPEZ-MENDIZABAL**  
(1879-1977)

Tolosak eman duen pertsonairik berriantzerkaria, akituzkaria aparta eta aitzidaria. Altaren inprentarekin jarraituz, Filosofia eta Letrak eta Zuzenbidea ikasketak egitu zituen, alokatu eta fiskal izan zen, kultura handiko gizona,



**ANTONIO MARI LABAIEN**  
(Tolosa 1859-1904)

Idazle eta politikaria izan zen, eta erbesteartu beharra izan zuen. Idazle bonak, genero guztiak idatzi zituen, baina batez ere, antzerki gintza erreferente bilhurtu zen euskal literaturan. Antzerki adizkaria sortu eta zuzendu zuen, eta Euskaltzaindikako kide izan zen.



**JOSE ARTZIMUNO AITZOL**  
(Tolosa 1896-Hernani 1936)

Ekintzaile eta antolazale sutsua izan zen; komunikabideetan idatzi, *Kardulbera* eta *Euskaltzale*



**DOROTEO ZAURITZ**  
(1876-1952)

1933ko martxoaren 21a, Lizardiaren ohoreko bilera nekrologikoa, ezkeretik hasita, Antonio Maria Labaien, Lauaxeta, Orixe, Lupe Urkioela, Antonio Garmendia, Pilarbo Samsenea, Aitzol, Doroteo Zauritz eta Faustino Leunda.



**IÑAKI LOPEZ-MENDIZABAL**  
(1879-1977)

Tolosak eman duen pertsonairik berriantzerkaria, akituzkaria aparta eta aitzidaria. Altaren inprentarekin jarraituz, Filosofia eta Letrak eta Zuzenbidea ikasketak egitu zituen, alokatu eta fiskal izan zen, kultura handiko gizona,



1933ko martxoaren 21a, Lizardiaren ohoreko bilera nekrologikoa, ezkeretik hasita, Antonio Maria Labaien, Lauaxeta, Orixe, Lupe Urkioela, Antonio Garmendia, Pilarbo Samsenea, Aitzol, Doroteo Zauritz eta Faustino Leunda.



Lizardi tolosarra eta Orixe oresarra.

## Emakumearen presentzia urria

Emakumearen presentzia biltza publikoan oso urria zen, baina Pilar Samsenea -Doroteo Zauritzen iloba eta Jesus Elsoegiaren emazte- eragile izan zen. Gerra aurreko kasteloko irakasle izan ziren: Inaki Murkita, Dolores Arbillita, Juantxo Gokoeña, Isidora Morera, Miren Brau, Modesta Segura, Maria Rezola eta Teresa Salazar. Argelaitxo Arrese Emakume Abertzaleen Batzako lehendakaria Batzokian, Lupe eta Tere Urkioela ahizpak ere aipatu behar dira mugimendu honetan.

## Egitaraua

**MARTXOAK 23, LARUNBATA**  
11:30, Tolosako udalteatxo pleno aretoan harerra egingo die bertaraten diren guztiei Ibañe alkateak. Beste beste, Bakarko Tejeria Eusko Legebiltzarreko lehendakaria, Ramon Labaien politikari ohi eta euskaltzalea eta Aitzolen ahaidak izango dira.  
11:30, Aranzadi Zientzia Elkarteko idazkaria den Juanito Agirre Majoñek Euskal Pizkundean omeneg prestatutako

## bideoa aurkeztuko du eta udal

leteko batzar aretoan kutsu ahal izango du.  
Ondoren, Euskal Pizkunda izendapena emango dioten Aranburu Jauregi ondoako plaza jarriko dira. Musika eta kantu emanaldi berezia eskainiko da. PIANO, JUANITO ZEBERIO Etxetxia arko da, eta ahotsa Elene Arandak jarriko da. KANTUAK, Laski abesbatzako haurrek izango dira, eta testuak Karlos Linazasoro, Jose Mari Irualde eta Igor Estanekorenak izango dira.



**harpidedun izateak badu saria zozketa**

1 Ostatu Hernialde Jatetxea  
Bi laguntzako bina bazkari edo afari  
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**  
Hernialde  
Tel.: 943 65 24 96

2 Euskal Herriko Plaza  
Sorta bat  
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**  
www.euskalherriko-plaza.com

3 Eureka zientzia museoa  
Bi laguntzako bina sarrera  
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**  
Miketegi pasalekuak, 43-45  
Tel.: 943 01 24 78  
www.eurekamuuseum.com

Parte hartzeko deitu eta idatzi: **902-82 02 40 edo sartu tolosaldea.hitza.info** helbideren **ZOZKETAK** atalaren bitartez. Bereziki erabiltzeko erabilgarria da **www.hitza.info** webgunean. Zuzeneko estekaren bidez ere.



# ETArri laguntzea egotzita, 44 urteko espetxe zigorra ezarri diote Manex Castrori

Inaxio Uriaren hilketan laguntzea leporatzen dio Espainiako Entzutegi Nazionalak; ETArri kide izatetik absolbitu dute

**Mikel Iraola** Amasa-Villabona

Espainiako Entzutegi Nazionalak 44 urteko kartzela zigorra ezarri dio Manex Castro billabonatarri, 2008ko abenduaren 3an Inaxio Uri enpresariaren hilketan lagundu izana egotzita. Epaia arabera, Castrori Deba ingurura eraman zituen Uriaren hiltzaileak, berak eskuratutako auto bate-

an. Han, bigarren auto bat lapurtu zuten pistolaz, eta ustez, Castro, kotxearen jabea zaintzen ibili zen, gainontzekoak Azpeitira joan eta Uria hiru tiroz hil zuten bitartean. Castrori, haren nagusiak eta beste hiru testiguk, Villabonako lorategi batean lanean ibili zela bazioten ere, tribunalak bi gauzak egin ahal izan zituela ondorioztatu du.

Hori dela eta, eta fiskaltzak 59 urteko espetxe zigorra eskatu arren, 44 urteko kartzela zigorra ezarri diote Castrori. Lau delitu egotzi dizkiote: hilketa, atxiloketa ilegala, ibilgailu baten lapurreta, eta kalteak. Espetxe zigorraz gain, 280.000 euro ordaindu be-

harko dizkio Manex Castrori familiari kalte-ordain gisa. Diru horren erdia, Uriaren alargunarentzat izango da; 40.000 euro, lau semeentzat; eta 80.000 euro alabarentzat. Babestuta dagoen lekuko bati ere, 8.000 euro eman beharko dizkio.

Gainera, kondena bete eta hamar urtera ezin izango du Azpeitira, zein familiartekoren baten-gana gerturatu.

**Santa Cruz, absolbituta**

Iraitz Santa Cruz, berriz, ETArri lagundu izatetik absolbitu dute. Castrori lehen ibilgailua uztea leporatzen zioten, baina zertarako zen ez zekiela frogatu dute.

## Irudia ◊ Irura



## ADI, EZ DIRA RADARRAK!

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bide Azpiegituren Sailak finantziazio eredu integral bat jasotzen duen arau proposamena prestatu asmo du, eta bide horretan, mugikortasunaren eta trafiko ohituren gaineko azterketa burutzen ari da aste honetan. Hori dela eta, probintziako zortzi puntutan, hainbat kamara jarri dituzte ibilgailuen jatorri eta helburuak zein diren ikusteko, horietako bi, Irura eta Villabonan. Bezaz, jendeak hala uste zuen arren, ez dira abiadura radarrak. A. IMAZ

## Irudia ◊ Tolosa



## 197/2006 DOKTRINAREN AURKA

197/2006 doktrina eten. Giza eskubideak. Irtenbidea. Bakea lelopean, eta Tolosaldeko Herrira mugimenduak deituta, manifestazioa egin zuten atzo Tolosako kaleetan zehar, Trianguloa plazatik abiatuta. Hain justu, atzo, Ines del Rio presoaren

kasuaren harira, Europako giza eskubideen epaitegian 197/2006 doktrina aztergai izan zuten. Doktrina hori bertan behera gelditzeko eskatu zuten Tolosan manifestazioan parte hartu zuten 250 pertsona inguruk. A. IMAZ

## Zizurkilgo II. Gazte Eguna ospatuko dute igandean

Txepetxa Gazte Asanbladako kideek orotariko ekintzak antolatu dituzte goizaldera arte

**M. Iraola** Zizurkil

Txepetxa Gazte Asanbladak antolatuta, Gazte Eguna ospatuko dute datorren igandean Zizurkil, bigarren urtez.

Lehenengo edizioan, herriko 70 gaztetik gora bildu zen, eta arrakasta ikusita, ekimenarekin aurrera egitea erabaki zuten asanbladako kideek.

Egitarau zabala antolatu dute: herri kirolek irekiko dute eguna, 11:30etatik aurrera. Ondoren, txerrikume erakustaldia, eta trikipotea izango dira herriko tabernetan. Bazkal aurretik, ordubatean, Txepetxari ongi etorria egingo diote plazan.

14:00etan egingo dute bazkaria, eta tiketak herriko tabernetan daude salgai 15 euroren truke.

Arratsaldean, berriz, gazte jolasak eta txerri harrapeketa egingo dituzte Lartingo zelaian. Iluntzean, 20:00ak aldera, triki-bertso poteoa izango da, eta festari amaiera ona emateko, gaueko haizea maiketarik aurrera, Aierrick taldeak goizaldera arte joko du.



HITZAK harpidedunentzat  
bi sarrera pare ditu

Pirritx. Porrotx eta Marimototsek  
eskeiniko duten emankizunerako

Zozketan parte hartzeko deitu osteguna: 14:30ak baino lehen 943 65 56 95 telefono zembakina.



Martxoak 24 - igandea  
17:00  
Asteazko 17:00

zozketa

## Ur Algero ◉ Udalbiltzako gobernukidea

Berrantolaketa batzarra egin ostean, Udalbiltza, Euskal Herriko udalen eta udal hautetsien biltzarra, abian da berriro; gobernu plana eta aurrekontuak onartzea izango da hurrengo pausoa

# «Herriaren borondatea bideratzen hasteko tresna izan daiteke Udalbiltza»

**Iñigo Terradillos** Areso

Udalbiltza Euskal Herriko udalen eta udal hautetsien biltzarra abian da berriz ere. 1999. urtean sortu zenean zituen bost printzipioak berretsiz, hau da, Euskal Herria nazioa dela aldarrikatzea, Euskal Herriko egitura politikoa eraikitzen laguntzea, Euskal Herriaren nazio eraikuntza bultzatzea, herrialde guztietako udalerrien artean harremanak sendotzen laguntzea eta Euskal Herria nazio berezkoa eta desberdindua dela adieraztea nazioartean. Erakundea berrantolatzeko batzarra iragan martxoaren 2an egin zuten, eta Mertxe Aizpuruak hartu zuten bertan lehendakari kargua. Gobernukideen artean dago Ur Algero Aresoko alkatea.

**Nafarroa Garaiko gobernukide zara Udalbiltzan. Zein da zure egitekoa?**

Udalbiltza berrantolatzeko lanetan egon naiz azken hilabeteetan, eta gero, gobernukide izatea proposatu zidaten. Lehendakari eta lehendakariordeak daude bate-tik, eta bestetik gobernukideak. Udalbiltzaren baitako erabakiak hartu, bileretan parte hartu eta ekarpenak egin, zubilanak egin herrialdeetako beste zinegotzi edo Udalbiltzako kideekin... Horiek dira, besteak beste, gure egitekoak.

**Behin erakundearen egitura osatuta, zein izango da orain hurrengo pausoa?**

Udalbiltzaren lehendabiziko fun-

tzioa edo helburua gobernu plana deitzen dioguna eratzeta izango da. Horretarako, martxoaren 2an Donostiako Victoria Eugenia antzokian finkatu ziren lehentasunak hartuko ditugu oinarri. Orain, bi hilabeteko epea dago beste Udalbiltzako kideek proposamenak eta emendakinak aurkezteko. Hurrengo batzarrean gobernu plana aurkeztu eta onartu, eta datorren urteko aurrekontuak onartuko lirateke.

**Zeintzuk dira bost oinarri edo lehentasun horiek?**

Lurralde garapena eta kohesio sozioekonomikoa indartzea litzateke lehena. Nazio egituratzea laguntzea, erakundeetatik nahiz gizarte alorretik. Herrien arteko

**«Euskal Herriaren eskubideen defentsan eragile indartsua izan behar du Udalbiltzak»**

**«Zuen potentziala ikusirik, proiektua errotik mozten saiatu zen Espainia»**

saretzea bultzatzea litzateke hirugarrena. Laugarrena, burujabetzaren aldeko diskurtso propioa eraikitzea. Eta, bosgarrena, nazioartean Euskal Herriaren presentzia indartzea litzateke.

**Erakundearen berrantolaketa nabes handia jaso duzue.**

1.278 hautetsik eman dugu izena, eta gure asmoa ahalik eta gehien zabaltzea da. Euskal Herria aintzat hartzen duen edozein hautetsik du lekua bertan, eta ahal bada, guztietara iritsiko gara. Victoria Eugeniako ekitaldian, esaterako, Jesus Mari Agirrezabala Udalbiltza-Udalbideko lehendakariorde ohia izan zen. Udalbide gaur egun ez dago martxan, eta bertako hainbat ordezkari Udalbiltza berrira sartu dira. Gehiago sartuko direla espero dugu, helburu berdinak ditugulako, eta Udalbiltzaren oinarriak oso zabalak, gardenak eta demokratikoak direlako.

**Zergatik izan beharko luke tresna baliagarri Udalbiltzak?**

Euskal Herriak herri gisa duen arazo handietako bat desegituraketa da: Hegoaldean bi autonomia erkidego desberdinetan banatuta gaude, eta Iparraldean ez dago departamentu propiorik. Herriarregandik gertuen dauden erakundeetatik, hau da, udaletatik egoera horri buelta ematen hasteko modua da Udalbiltza. Herri mailan, herri gisa antolatzen eta elkarren artean erakunde burujabeak eta erabat demokratikoak izango direnak sortzen hastea da helburua. Horretarako, Udalbiltza oso tresna garrantzitsua eta grafikoa izango da, Euskal Herri osoko hautetsiak baitaude.

**Gauregun bizi dugun egoeraz erpa-perdu Udalbiltzak?**



11.

Gaur egungo egoerak pertsona eta mugimendu desberdinen arteko zubiak eraikitzea errazten du. Euskal Herriaren eskubideen defentsan eragile indartsu eta eraginkorra izatera iritsi behar du Udalbiltzak. Bestalde, gatazka indarkeriarekin lotu izan dute, eta hainbat arlotan alde batera utzi nahi izan dute azpian zegoen arazo estrukturala edo gatazka bera. Hemen aurrera egin nahi duen herri bat dago, eta herri gisa garatzeko bere bideak ireki nahi ditu. Orduan, geratzen den galdera honakoa da: herri horrek demokratikoki eta gehiengoz hori erabakitzen baldin badu, nola egin posible bere garapena nahi duen bidetik eramateko. Herri gisa garatzeko eskubidea eta betebeharra dugu. Egokiena hori iruditzen bazaigu, gauden bezala jarraitzea erabaki dezakegu, edo bestela, etorkizuneko Euskal Herri bat, herriaren gehiengoaren

arabera eraikitakoa aukera dezakegu. Herriaren borondatea bideratzen hasteko tresna izan daiteke Udalbiltza.

**Bere historian traba handiak izan ditu. Historia errepikatu al daiteke?**

Udalbiltzaren potentziala oso handia da, eta hori Espainiak guk baino argiago ikusi du. Udalbiltzaren zatiketa eta ahulezia eman zen unean, Espainiako Gobernuak saiatu zen proiektua errotik mozten. Espainiako sistema judiziala zein den jakinik ere ezin izan dute frogatu Udalbiltzak delitirik zuenik, eta onartu behar izan dute erakunde demokratiko, garden eta legala zela. Euskal Herriaren garatzen ari den aro politikoa berriak asko zailtzen du Espainiak berriro ere trabak jartzeko bidea. Ez dut esango errepresioaren bidea bukatu denik, ez baita bukatu, baina Udalbiltza bezalako erakundeekin, nire ustez, Espainiako Gobernuak nekez errepikatu

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**



≈ 20°  
≈ 15°

GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	20°
HOTZENA	8°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Eneritz Maiz  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@hitza.info

**Tolosa Herria  
Hedabideak**

**BERTAKO  
SM-ko kideak:**



**Galtzaundi  
euskara  
taldea**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketza, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

# NATUR HOUSE

Elikaduran eta dietetikan adituak

**OPARI  
KUPOIA**



- Ohorezko Matrikula
- 10 bat lor ezazu
- Lider izatea

## EINSTEINEK HARTUKO ZUKEEN

**+ MEMPER** bial bat egunean  
**+ EXAMIVIT** sobre bi egunean

Dena **17,20\*** €

\* Beheko kupoa aurkeztu behar da



## ZURE OROIMENA ELIKATU EZAZU

Oinarrizko aminoazidoak, taurina, C bitamina, B motako bitaminak, tila eta melisa oinarri dituen osagarria. Hurbilen duzun Naturhouse dendara jo, eta zure MEMPER kaxa lor ezazu; hala, zure familiakoen eta zure oroimena indar dezakezu.

\* Kupoi hau aurkeztuz gero, MEMPER kaxa bat erosi eta EXAMIVIT kaxa bat emango dizugu, doan. (Nafarroa etorbidea, 1 Tel. 943 650 795 · TOLOSA)

**NATUR HOUSE**  
Elikaduran eta dietetikan adituak



Jarrai gaitzazu Facebook orrialdean  
[www.facebook.com/Spain.NaturHouse](http://www.facebook.com/Spain.NaturHouse)

[www.naturhouse.com](http://www.naturhouse.com)

\* Kupoa 2013ko apirilaren 30ra arte erabili daiteke HTZT21/3